

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4767

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2012ko apirilaren 27koa, Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 27ko Aginduaren eranskinean (2012ko ekainaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 134. zenbakia), eta jarraian zuzendu egiten dira:

I. eranskinean (goi mailako kirolariak), honela dio:

«Kerejeta Larrucea Joseba, expediente zk 203/11/D modalitatea Arrantza.»

Baina honela esan behar du:

«Kerejeta Larrucea Joseba; expediente zk.: 203/11/D; modalitatea: Urpeko Jarduerak (Urpeko arrantza).»